

IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU_n KONTRATATZEKO DEIALDIA (2024)

Emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU_n KONTRATATZEKO DEIALDIA (2024)

2025eko urtarrilaren 29an argitaratu zen Ikerketaren Arloko Errektoreordetzaren web-atarian onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrendaren azken aldaketa, ebaluazio-fasera igarotzeko.

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, IGBBk esleipen-proposamena egin du, behin-behineko ebazpena emateko eta argitaratzeko.

Ondorioz, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak ERABAKI du emandako eta ukatutako eskabideen behin-behineko ebazpena bere web atarian argitaratzea. Behin-behinean onartutako eta ukatutakoen eskaerak I. eranskinean daude jasota, lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

BEHIN-BEHINEAN EMANDAKO ESKAEREK 10 egun balioduneko epea izango dute, laguntzari uko egiten diotela adierazteko **2025eko otsailaren 4tik 2025eko otsailaren 17ra (egun hori barne)**. Horretarako, igz.pre-postdok@ehu.eus helbidera mezu bat idatzi beharko dute uko egiten dutela adieraziz.

Epe hori igarotakoan, berariaz uko egiten ez bada, eskabideak onartutzat joko dira. Kontratua formalizatzeko dokumentazioa behin-betiko ebazpena argitaratu ondoren eskatuko da.

BEHIN-BEHINEAN UKATUTAKO ESKAEREK, 10 egun balioduneko epea izango dute egoki irizitako alegazioak aurkezteko: **2025eko otsailaren 4tik 2025eko otsailaren 17ra (biak barne)**.

Epe horren barruan, hautagaiek beren eskabideari dagokion ebaluazio-txostena eskatu ahal izango dute, igz.pre-postdok@ehu.eus helbidera idatzita, eta "POSTUPV 2024 deialdia" mezuaren gailan adierazita.

Alegazioak UPV/EHUren [egoitza elektronikoaren](#) bidez aurkeztu beharko dira, eta "Eskatu" eta "Azaldu" ataletan honako hau adierazi beharko da: **U02000381_POSTUPV 2024**.

Ikerketa Batzordeak hurrengo bileran aurkeztutako alegazioak aztertuko ditu.

Leioan, 2025eko otsailaren 3an

Ikerketaileen Kontratazio eta Prestakuntzarako Baliabideen Kudeaketaren Atala
Ikerketaren Gestioko Zuzendaritza
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza